

LABek Hego Euskal Herriko administrazio publikoetako agintariei borondate politikoa izateko eta behin-behinekotasuna murrizteko neurriak adosteko exijitzen die

Europako Auzitegiaren sententziak argi eta garbi adierazi du Espainiako Estatuak behin-behinekotasuna murrizteko hartu dituen neurriak ez direla nahikoa.



ZERBITZU PUBLIKOAK
2026ko apirilaren 15ean

LABek Hego Euskal Herriko administrazio publikoetako agintariei borondate politikoa izateko eta behin-behinekotasuna jaisteko neurriak adosteko exijitzen die

Europako Auzitegiaren sententziak era argian adierazi du estatu espainiarrek behin-behinekotasuna murrizteko hartu dituen neurriak ez direla nahikoa



2026ko apirilaren 14an Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak sententzia eman du estatu espainiarrek kontratazio temporalen abusatuetan hartu behar diren neurriak ez direla nahikoa. Estatu espainiarrek hartu dituen neurriak inguruko balorazioa eman du. Orain arteko sententziarik erabakigarriena dela esan dezakegu. Erabakia EBJA berari ez badagokio ere, indarrean dauden neurriak ez direla nahikoa baieztatu du.

Sententzia honek era oso argian adierazi du behin-behinekotasuna murrizteko hartu diren neurriak ez direla nahikoa izan, hain zuzen ere, kontratazio temporalen abusatuetan egon diren langileei mugagabe ez-finko izatera aitortzea eta 20 eguneko kalte-ordainarekin indermunitasuna behin-behinekotasun egoera inarraztea dela dio; 33 eguneko kalte-ordaina emanda ere ez du nahikotzat jotzen du neurria. Hau da, prekaritate egoera luzarazten duen izaera edo figura da.

Horrekin batera, 20/21 legeak ezarritako egonkortze prozesuak ez-nahikotasuna adierazten du, izan ere, auzitegiaren abuzua oso generalista abuzua eta anbigua da; eta beraz, ez da nahikoa kontratazio temporalaren abuzua ezabatzea eta zigortzeko. Hau da, egonkortze prozesuak administrazioen erantzukizuna badira ere kontratazioaren gehiegikeriak gelditzeko ez nahikoa izan dira, eta atea irekita uzten dio kontratazio temporalaren abusuari. Gainera, sententziak dio lan egindako denbora berdin baloratzen dela langileak abuzua jaso badu zein ez.

Egonkortze prozesuak hasi zirenean salatu genuen Hego Euskal Herriko eta Madrilgo gobernuak agintu zituzten behin-behinekotasuna jaisteko neurriak ez zirela nahikoa izango eta ez zirela 20/21 legeak ezarritako %8ra ere iritsiko. Bada egonkortze prozesuak pasa diren honetan baieztatu dezakegu horrela dela Hego Euskal Herriko administrazio publiko gehientzatan. LABek argi du borondate politikoa kontatu dela behin-behinekotasuna tasa jaisteko eta egiturazko enplegua sortzeko neurriak ezartzeko, eta horren frogarria argia EAJko hedakuntza publikoan sinatuta honek erakusten dituen lan-hitzarmenak izan dira.

Oraingo honetan, azken urteotako sententziak jarraituz, argiago gelditu da Euskal Herriko langileek ezin dugula epaileen interpretazioen menpe egon, eta inaktibo politiko serioak behar ditugula, hemen erabaki ahal izateko enplegu publikoari dagozkien neurriak, behin-behinekotasuna jaisti eta egiturazko langileak auzitegiak berriz Soldata eta enpleguari lotutako neurri garrantziak, beraz, hemen erabaki behar ditugu, euskal administrazioek eta langileon erabakietatik adostuta, eta lege propioez babesturik.



2026ko apirilaren 14an, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak sententzia eman du Espainiako Estatuak aldi baterako kontratazio temporalen abusuei aurre egiteko hartu beharreko neurriak buruz; zehazkiago, Espainiako Estatuak hartu dituen neurrien balorazioa egin du. Orain arteko sententziarik erabakigarriena dela esan daiteke. Erabakia EBJAri berari ez badagokio ere, indarrean dauden neurriak ez direla nahikoa baieztatu du.

Sententzia honek argi eta garbi adierazi du behin-behinekotasuna murrizteko hartu diren neurriak ez direla nahikoa izan; izan ere, kontratazio temporalen abuzua jasan duten langileei “mugagabe ez-finko” izaera aitortzea eta 20 eguneko kalte-ordaina ematea behin behinekotasun egoera irauraztea dela dio; eta 33 eguneko kalte-ordaina emanda ere ez du nahikotzat jotzen neurria. Hau da, prekaritate egoera luzarazten duen figura da.

Horrez gain, 20/21 Legeak ezarritako egonkortze-prozesuak ez-nahikotasuna ere azpimarratzen du; izan ere, auzitegiaren arabera, oso orokorra, abstraktua eta anbigua da, eta, beraz, ez da nahikoa kontratazio temporalaren abuzua saihestu eta zigortzeko. Hau da, egonkortze-prozesuak administrazioen erantzukizuna badira ere, ez dira nahikoa izan kontratazioaren gehiegikeriak gelditzeko, eta atea irekita uzten diote kontratazio temporalaren abusuari. Gainera, sententziak dio lan egindako denbora berdin baloratzen dela langileak abuzua jasan duen ala ez kontuan hartu gabe.

Egonkortze-prozesuak hasi zirenean, LABek salatu zuen Hego Euskal Herriko eta Madrilgo gobernuak agindutako behin-behinekotasuna murrizteko neurriak ez zirela nahikoa izango, eta ez zirela 20/21 Legeak ezarritako %8ra ere iritsiko. Egonkortze-prozesuak igaro diren honetan, baieztatu dezakegu

hori hala dela Hego Euskal Herriko administrazio publiko gehienetan. LABek argi du borondate politiko kontua dela behin-behinekotasun-tasa jaisteko eta egiturazko enplegua sortzeko neurriak ezartzea; horren frogarik argiena EAEko hezkuntza publikoan sindikatu honek lortutako lan-hitzarmenak izan dira.

Oraingo honetan, azken urteotako sententziei jarraikiz, are argiago gelditu da Euskal Herriko langileok ezin dugula epaileen interpretazioen menpe egon, eta erabaki politiko sendoak behar ditugula, hemen bertan erabaki ahal izateko enplegu publikoari dagozkion neurriak, behin-behinekotasuna murrizteko eta egiturazko lanpostuak aitortzekoak barne. Beraz, soldata eta enpleguari lotutako neurri guztiak hemen erabaki behar ditugu: euskal administrazioek eta langileen ordezkariak adostuta, eta lege propioez babestuta.